



OÑATI
dabilen herria



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA OROKORRA ONARTU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, arauak egiteko prozeduran herritarrek parte hartuko dutela bermatzeko, ordenantza-proiektua egin aurretik, kontsulta publikoa bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Kontsulta horretan, eragina izan dezaketen subjektuen eta etorkizuneko antolakunde adierazgarrien iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak
- b) Arau honi onestea beharrezko eta egoki den
- c) Arauaren heluburuak
- d) Izan litezkeen bestelako aukera errugulatzailerak eta ez-errugulatzailerak.

1) EKIMENAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK.

Gaur egun Oñatiko Udalak badu udal-diru- laguntzak emateko araudi bat, eta araudi hori berrikustea eta eguneratzea komeni da. Beraz, uste dugu udal-dirulaguntzak emateko ordenantza orokor bat onartzeak honako hauek erraztuko dituela:

- Dirulaguntzak emateko prozesua argitu eta zehaztea.
- Udal sailen artean dirulaguntzak emateko prozesua homogeneousatzea eta bateratzea, eskaeren prozesuari, onuradunen betebeharrak eta dirulaguntzen justifikazioari dagokienez.
- Araudi oso bat onartzea, urteko deialdia sinpleagoa eta errazagoa izan dadin.
- Ordenantza legezko eskakizunetara egokitzea, gardentasunari, finantza-kontrolari eta zehapen- araubideari dagokienez.

2) ONARPENAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Ordenantza berria da, dirulaguntzen arloko araudia betetzeko sortutakoa.





OÑATI
dabilen herria

3) ARAUDIAREN HELBURUAK

Udal-araudi berri bat onartu nahi da, aurreko araudia indargabetu eta ordezkatzeko duen araubide oso eta integral bat.

4) ALTERNATIBA ARAUTZAILE ETA EZ- ARAUTZAILEAK

Toki-erakundearen araugintza- edo erregelamendu- ahalaren adierazpenak dira toki-ordenantzak eta erregelamenduak. Beraz, erreferentziazko gaiaren araudia garatzeko Udalak duen aukera arautzaile bakarra dira, hargatik eragotzi gabe oinarrietan arautu daitekeena.

Horrenbeste, Kontu-hartzailearen proposamena kontuan hartuz, Oñatiko Alkate naizen honek, honakoa erabaki dut:

1. Dirulaguntza ematea arautzen duen Ordenantza Orokorren prozedurari hasiera ematea.
2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikulua xedatutakoari jarraituta, Udalaren webgunean kontsulta publikorako epea zabaltzeko helburuarekin, hasierako dokumentua publikatzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2025eko ekainaren 19an


Alkatea
OÑATIKO UDALA
Izaro Elorza Arregui

